

MOZIO ARRUNTA,

UDAL AUTONOMIA DELA-ETA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNTA aurkezten du, Udal autonomia dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Azkenaldian inoiz baino ageriago geratu da Espainiar Gobernuak euskal erakundeen -eta ondorioz, herritarren- burujabetza eta jarduteko autonomiaren aurka irekia duen frontearen eragina.

Eusko Legebiltzarrari dagokionez, 2008ko Kontsulten Legea, baliogabetua, eta etenda dauden Etxebizitza eta Fracking Legeak dira adierazgarrienak. Nafarroako Parlamentuari dagokionez, Elizaren zergak, Osasun legea, Ez ohiko sari-ordainketa, Energia-ekoizle txikiena, Frackingaren aurkakoa, Komertzioa jai egunetan, Kaleratzeen aurkakoa, Zorpetzearen legeak... eta abar luze batek errekurtsoa jaso dute. Eta azkeneko berria dugu ETB-k Nafarroako Foru Komunitatean emititzeari utzi behar izan diola Industria Ministerioaren aginduz, eta zigortua izateko mehatxupean.

Bestetik, 2016ko apirilaren 14ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal-legea indarrean sartu den honetan, toki-erakundeen garrantzia eta autonomiarako errespetua balorean jartzen zela zirudien arren, Espainiar Gobernuak Euskal Herriko udal erakundeen autonomiarekiko esku-sartzeekin jarraitzen du. Euskaraz agiri ofizialak egiteko afera horren adibide garbia dugu, beriziki udal txikienei eragin diena gainera.

Guzti hori soilik euskal erakundeen egungo eskumenen egikaritzearen baitan; hau da, alde batera utzita: oraindik transferitu gabeko 35 eskumen direla, (Gartzelak, Enplegu-politika aktiboak, Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen kudeaketa, eta abar luzea); beste gai asko transferitzeko aldarria (babes soziala edo lan legedia, kasu); eta euskal erakunde eta herriaren erabakitzeko eskubidearekiko errespetuaren aldarriak.

Testuinguru berean, Donostiako Udalak azken urteotan jasandakoa nabarmena da, etengabea izan baita Espainiar Gobernuaren esku-hartzea udal araudiei eta akordioei

dagokienez, errekursoak, geldiarazteak eta abar erabiliz: udal diru-laguntzak, Telefonía Antenen araudia, Hiritar Kontsul ten eta Kalamu klub en araudiak eta beste hainbat eta hainbat udal akordio.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak dei egiten dio Espainiar Gobernuari bertan behera utz ditzala Kalamu Klubak arautzeko Ordenantzaren, Hiritar Kontsul ten Erregelamenduaren eta Toki Gobernuak zein Udalbatzak hartutako ezein akordioaren aurka ezarritako errekursoak, eta Telefonía Antenei buruzko araudia ez geldiarazteko prozedurak egin ditzala.

2.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak dei egiten die Espainiar Gobernuari eta EAEn duen delegatuari utz diezaiotela Donostiako Udalaren akordioak eta araudien aurka itsukeriaz errekurso egiteari.

3.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak dei egiten die Espainiar Gobernuari eta EAEn duen delegatuari errespetatzea udal autonomia, erakunde arteko errespetuaren printzipioaren baitan, eta udalak herritarrengandik gertuen dauden administrazioak direla aintzat hartuta.

Donostian, 2016ko maiatzaren 6a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea